

Ezkufitz oiek eskatzen dutenez Euskaltzaindiak Euskaleñiko Udalai idatziko die, beren dirutzatik euskal-liburuentzat zerbait gordetzeko.

Urtel jaunarena irakuñi da eskerak emanez bidali zaizkion liburuagatik.

Schuchardt jaunarena ere irakuñi da: bidali zaion sorospideagatik eskerak agertzen ditu.

Esteban Irañeta jaunak, Iruña'ko euskal-irakasle danak, ango ikasleak beren ikastaroan ondo dioa-zela esaten du.

8. Aspañen'go Urian Broussain jaunaren oroigarritzat, onen jaiotetxean, ari bat jai bear da. Euskaltzaindiak eta ango Udalak erdibana ordainduko dute.

Eta beste gairik izan ez da, amaitu da batzaraldi au araudi-otoitzez.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Joñailaren 26'an.

Batzaraldira euskaltzain abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Eguskitza, Altube, Intza, Landeñetxe, Olabide eta Intzagarai, urgazlerik batez. Otoitzez asi da-ta, ara zer egin dan batzaraldi ontan.

1. Azkue jaunak Gerhard Bahr jaunaren lan bat irakuñi du. Schuchardt jaunaren idazti baten itzulpena da ta Sara'ko euskeraz jarduten du. Atsegiñez entzun du Euskaltzaindiak ta itzulpenaren beste zati bat ur-engo batzaraldirako utzi da.

2. Azkue berak irakuñi du bere lan eder baten bigařen zatia. *Categorías gramaticales* izentzat da

rama ta bere *Morfologia*'ren osopena da. Gure *Eusker*a'n azalduko da lan au ere.

3. A. Olabide beste lan eder baten egile azaldu zaigu. *Notas sobre la conjugación auxiliar del verbo guipuzcoano*. Ondo aztertu ditu giputx-aditzaren bazterak ta batez ere aditzari erasten zaizkion atzizki geitzaleak.

4. Eguskitza jaunak bere beste batzuen antzeko lan mamitsu bat dakar. *Morfología del verbo vizcaino*. Berak dakien bezela, ondo aztertu ditu Kapanağa'ren adizkera guziak.

5. Aita Madariaga'k Euskaltzandiarri, onek eskatuta bidali dio, lekaide prantziskotařen etxetan arkitzen diran *kristau-ikasbide* zařen iragařitxo bat. Euskaltzaindiak eskerak demazkio ořen aguru egin duen erantzupenagatik.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzita, oituzko otoitzaz, amaitu da batzařaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Jořaila'ren 27'an.

Auręko batzařaldiko euskaltzain berak batzařaldi ontara datoz, Azkue maipuru dutela. Otoitz egin-da, ara zer erabaki dan.

1. Azkue jaunak Bahr jaunaren lana irakuři du. Auręko batzařaldikoaren beste zatia da.

2. Oraintsu Bilbo'n Jel-Alderdiak izan duen Batzar-Nagusian, Euskeraren aldezko beti izango dala aitortu du. Baita ere euskera beroni dagokion arau,